



PRENTSA-OHARRA

Udalak esparru-akordio baten bitartez kontratatuko du Iruñeko kultur programazioari begirako agertoki- eta karpa-hornidura

Iruñeko Udalak esparru-akordio baten bidez hautatuko ditu Iruñeko kultur programazioari begira agertokiak eta karpak hornitzen dituzten enpresak, modu horretan kontratazioak azkarrago egiteko, eta modu eraginkorragoan. Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek baldintza-agiriak onetsi ditu, eta horrekin batera hasiko dira esparru-akordioa garatzen, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu den prozedura irekiaren bitartez. Hori horrela, Udalak enpresa hornitzaileak hautatuko ditu.

Esparru-akordio honen bidez estaliko dira Udalak Kultura eta Hezkuntzako Alorraren bidez gauzatzen dituen kultur programazioen azpiegitura-beharrak, izan programazio horiek Udalarenak edo beste erakunde batzuekin elkarlanean egindakoak, eta balioko du, baita ere, beste udal-alorretan gerta daitezkeen beharrak asetzeko. Behar horiek barne hartzen dituzte azpiegituren hornidura, garraioa, muntaia eta desmuntaia, eta lau sortatan banatzen dira.

Lehenengo sortak estalkirik gabeko agertokiak hartzen ditu barne; bigarrenak, agertoki estalkidunak; hirugarrenak, aulkiak; eta laugarrenak, karpak. Baldintza teknikoen agiriak sorta bakoitzaren ezaugarriak xehatzen ditu. Zerbitzuaren txostenean jasotakoarekin bat, sorta bakoitzaren tarifak ezartzerako orduan funtsezko bi irizpide hartu dira kontuan: aurretik egindako azpiegitura-kontratazioetako esperientzia eta hornitzaileek beraiek emandako tarifak. Hori abiapuntu hartuta, prezioen batezbestekoak kalkulatu dira. Kontratuaren zenbatekoa, guztira, 121.000 euro da, BEZa barne.

Esparru-akordioak urtebeteko indarraldia izango du, hautaketa-akordioa egin eta hortik aitzina, eta urtebeteko luzapen bakarra izan ahalko du. Lizitazio honetan lehiatzeko interesa dutenek maiatzaren 22a baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaintzak. Azpiegitura-beharra gertatzen den bakoitzean, sorta bakoitzerako hautatu diren enpresei eskatuko zaie aurrekontua; enpresek ezingo dituzte azpiegiturak eskaini lizitazioan aurkeztutako prezioen gaineratik, ezertan galarazi gabe prezioak baxuagoak izatea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 8an

